



ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua:	IO-2014-039
Izena:	Lege-aurreproiektua, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoa.

Egileak:

Sin.: J.I. Osaba Urrutia

Proiektuen arduraduna

Eguna: 2014-11-21

Onartua:

Sin.: Javier Bikandi Irazabal

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa

Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria

Eguna: 2014-11-21

ANTOLAMENDU-TXOSTENA	
Dokumentua: IO-2014-039	Orrialdea: 2/3

Proposamena:

Herri Administrazio eta Justizia Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak, 2014ko azaroaren 20ko sarrera-data zeraman transmisio telematikoaren bidez, hau eskatu zion Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzari: txostena eman zezala Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke Lege Aurreproiektuari buruz.

Lege horren xedea da Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa antolatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak eta Instituzionalerako laguntza juridikoa arautzea, zeina sailtako edo erakunde instituzionaletako aholkularitza juridikoek eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak emango baitute.

Legearen barruan zati hauek bereiz daitezke:

- Azalpen-zatia.
- Xedapen-zatia, 17 artikulurekin. 4 kapitulutan sartzen dira (- 1. Xedapen orokorrak. -2. Aholkularitza juridikoaren funtzioa. -3. Auzi-funtzioa. -4. Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusia eta haren antolamendua).
- Azken zatia: xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat (Euskal Autonomia Erkidegoaren Epaietarako Ordezkatza eta Aldezpenari buruzko ekainaren 26ko 7/1986 Legea hartzen du aintzat) eta bi azken xedapen.

Balorazioa eta ondorioak:

Txosten honen xedeko lege-aurreproiektua aztertuta, hau adierazi behar da egitura- eta antolamendu-alderdiak direla eta: oinarritzko mailan egiten denez tratamendua, ez dagokiola orain inongo oharrik egitea, ongi ulerturik aukera hori, nolana ere, gerora gauzatu daitekeela, honako hauek aztergaitzat hartuta: garapen-arauak, oro har, eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamendua, bereziki. Gauza bera esan daiteke prozedura-alderdien gainean. Horiei buruz aurrera daiteke, hala ere, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza honek bere burua eskaintzen duela aholkularitza eta informazioa emateko, hala behar izanez gero, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoen berezko prozeduren izapidetze elektronikoa arautu, antolatu eta ezartzeari dagokionez.

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-039

Orrialdea: 3/3

Txosten hau ematen du Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 18. artikuluan esleitu zaizkion funtzioen arabera.